


Nafar **k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko abuztuak 21 / II. urtea / 38. zenbakia



Bardeak: basamortu edo ondare?

Nork ez ditu ezagutzen Bardeetako irudi harrigarriak, urak eta higadurak landutako forma bitxiak, txirrin-dulaz ibiltzeko toki aproposak? Gutxi ezagutzen dituzte, baina, benetako egoera eta arazoak, Bardeetako garrantzia. Irailean bertako Batzorde Orokorrean erabakiko diren arautegien aldaketak funtsezko eragina izango du zonalde honen etorkizunerako, bertan eztabaidatuko bait da, finean, nekazaritzaren menpe jarraitzen duen, batzuren eskuetan, edota garapen orekatu eta zentzuzkoa ematen zaion, ekologia eta giza-kumearen iharduerak lotuta eta elkarlanean.

Jarrerak ez dira oso zehazturik, baina lehendabiziko proposamena atzera bota zuten aurreko bileran. Nekazariak eta udalen arteko lehia izan daiteke aurrerantzean, batzuk jabego pribatuaren aldeko borrokan ari bait dira, eta besteek 'komunal atipikoak' izakerari eutsi nahi diotelako.

Zubian barna



BINGEN AMADOZ

Bukaezineko kulebroia bihurtu zaigu aspaldi honetan autobiarean auzia. Patata bero hori eskutik eskura darabilte. Inork ez du erreduarik nahi eta ahurra epeldu orduko airean dago berriz. Nora eroriko da hurrengoan? Lanagatik, haren atzetik ibili beharra izaten dugunok ezin asmatuz gabiltza. Gainerako herritarrei axola handirik ez. Kulebroia ulertu ahal izateko egunez egun segitu behar da. Bestela, laister galtzen zara. Uda-partean gainera, nobelak ez du oporrik hartu eta gure arteko jendeak bai. Kazetariok, eta politikariek ere gauza bere egingen dute, nik uste, egunean jartzen ditugu gure lankideak oporretatik itzultzean.

Ba, begira, azken kapitulu hauetan bereizkuntza-antza izan da UPN eta gobernuaren artean. Beti bezala sekulakoak eta bi esan dizkiote elkarri. Badakizu senar-emazte horiek dirua eta boterea pilatu egin dituztela pixkanaka-pixkanaka. Amodio eta sexu-harreman kontuetan ordea ez da biltza sobera ongi. Irainak direla, mutur-jokak direla, haserre eta karraxiak gora eta behera, parrez batzutan eta gehienetan asperturik dauzkate auzoko guztiak. Gero ba, maitaleen ingurukoak, hor tartean. Senarra PSOErekin enroilatu nahian, baina emaztea beti oztopo.

Asmatu zuten zeozer. Bainan azkenik pott! Ta gero susmo horiek. Emakumea ez dakit ze xirritan ibili zela ezkontzeko garaietan HBrekin, ta holakoak. Jo zuten azkenik, bada-kizu, apaiz-lagun prekontzilar horrengana, aholku eske. Eta honek esan die itxurak egiteko. Lo-gela ezberdinetan egingen dute lo bainan teiatu beraren azpian. Xurrunmuruak ixiltzeko laguntasun berriak biltzeko. EA eta IUKoei deia egin eta afaltzera gobindatu dituzte handik laister. Adiskidantza interesatuak biltzen ari direnez gero ez da ba, tirabirarik gabe egiten jatorduaren prestakuntza.

Eske... neri piperrek min egiten didate eta gainera beste konpromezu bat harturik neukala ta ez dakit... kasi ba ezetz, dio batek. Etxekoek, aldutuko zutela zerbait konpromezuko horrekin hitz egiteko. Bueno, ba, joanen naiz, azkenik, lehenbizikoak. Bigarrenak, berriz, igoal kafe hartzera...

Ta senar-emazte guztiz ahaldunak, itxurak gordetzeko ahaleginetan sarturik ditugu beti ere. Arteko harremanak eta gorputzak barnetik ustelak baldin badira ere, kontua da auzokoan aurrean irribartsu eta ongi jantzirik agertzea.

Beren ohe-arazoak, ordea, bost axola zaie gehienei eta beste asko biziki nekaturik gaude ezertan gozagarri ez diren lizunkeri horietaz.

Barnean

PILOTA



Ibarra eta Beloki ez dira Cubako mundialetara joango / VII

FUTBOLA



Roman Kosecki, Urbanen laguna Osasunan / VIII

Gure aukerak

MUSIKA



'Bibolin eta piano emanaldia' izanen da heldu den igandean, hilak 23, Iruñeko Gaiarre Antzokian. Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan joan den urtean Pablo Sarasate Nazioarteko I. lehiaketan parte hartu zuten hiru bibolinjole gazteek eskeiniko dute kontzertu interesgarri hau, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

'Kitarraren hiru estilo' izeneko emanaldia emanen dute Ros-Garcia bikoteak, Rafael Riqueni eta Ximo Telbarrek, heldu den igandean, hilak 23, Tuterako Gaztambide antzokian, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

'Pro Musica Antiqua de Madrid' izeneko taldeak tonallidari buruz kontzertu bat eskeiniko du heldu den ostegunean, hilak 27, Tuterako Gaztambide antzokian, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

IKASTAROKAK



'Diruaren hamarkada' lemapean bost hitzaldi emango dira heldu den astean zehar, Iruñeko Enpresa Ikasketen eskolan. Dirua, ikusmira polemiko batetik izango dute aztergai gonbidatu adituek, eta Raul Herasen zuzendaritzapean, Ramon Tamames, Amando De Miguel, Jose Luis Nagore eta Carlos Malo de Molinak hartuko dute parte.

ERRAN DUTE

UPNk erakunde protokolario huts bihurtu du Nafarroako Parlamentua.

Iñaki Cabases
Eako parlamentaria

«Bost axola zait taldean hainbeste jokalarit atzerri- tar edukitzea».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea

«Telebistan botatzen den publizitatea ez da uste den bezain eraginkorra».

Ignacio Ramonet
Publizitatean aditua


«Tontoarena egiten badugu, galduko dugu maila, seguro».

Javier Martinez
Artaxonako entrenatzailea.

Aibarko ibarra entitate bakarra izan zen 1846ra arte, eta bertan biltzen ziren herriak ondokoak ziren: Abaitz, Caseda, Eslaba, Galipentzu, Lerga, Peña, Rocaforte, Sabaitza, Zare eta Xabier; eta baita ere Aiesa, Azporogi, Gardalain, Getadar, Izko, Julio, leatxe, Loia, Moriones eta Usunbeltz.

Zonalde osoan famatua da ardo, oso ardantza bereziak eta onak bait dituzte, eta herri guztietan lehia bizia dago urtero nork ardo onena atera. Eslaban, sartu eta ezkerrean, Santa Anaren gurutzea dago, Berpizkunde garaiakoa. Indusi ibaiak zeharkatzen du herria, eta bertan, ardoaz gain, olio, pastak, eta gauza zaharrak eros daitezke. Famatuak dira ere bertan dauden Artamaletako aztarnak, erromatarren garaikoak.

Galipentzun erdi aroan izan zen gazteluaren aztarnak ikus daitezke oraindik, herriaren goiko partean. Halaber, famatua da bertan, Aragoa ibaiaren gainean, dagoen zubia, XVIII mendean



hondatu zutena. Erronkari eta Zaraitzutik zetozen almadieroek zerga ordaindu beharra zeukaten hortik pasatzerakoan.

Gerendiainen azpimarratze-koak dira bertako kobazuloa, Diabozulo izenekoak, Alaizko mendizerraren magalean.

ERAKUSKETAK



Blanca Garnicaren lanak izanen dira ikusgai hilaren amaiera arte Nafarroako Aurrezki Kutxak Amariurko Gaztelua kalean duen aretoan, 'Rincones y mas espacios' izenarekin. Nafarroako Gobernuak sormen lanei emandakoa laguntza jaso zuen Leringo gazte honek, eta egun Pariseko Arte Ederretako Eskola Nazio-

nalean dabil ikasten. Bere lanetan zura, kautxo eta argia nahasten dira.

Pelayo Ortega' pintorearen obrak ikusgai daude Iruñeko Gotorlekuan. Asturiaseko artistaren azken obrak ikusteko aukera, beraz, abuztuaren 27ra arte.

Nafarroako Jaialdietako X. Pintura Sarirako egin zen deialdian aukeratutako obren erakus-

keta asteazkenean amaituko da. Neurri eta gai aldetik mugarik ezartzen ez denez, joera desberdinen obra adierazgarri asko aurkeztu dira aurtan ere.

Pablo Serrano eskultorea eta Juana Francesen pintorearen obrak ikusgai izango dira Erriberriko Gazteluan abuztuaren 29ra arte. Esanahi bikoitzeko obrak, artista hauek egin dituztenak.

ASTEKO PERTSONAIAK

Roman Gubern



Komunikabideetan aditua

Barcelonako Unibertsitate Autonomoan Ikus-entzuteko Komunikabideetan katedraduna egunotan Iruñean burutzen ari den 'Azpikultura telebisioko' izeneko zikloaren zuzendaria da. Nafarroako Jaialdien egitarauaren barruan prestatu den ziklo honen helburua, bere zuzendariaren esanetan, hain ugaria bezain kritikatu den 'programazioa goxokia' aztertzea da, berak eskuratzen bait ditu audientzi kopuru altuenak. Bere ustetan, horrek esan nahi du bere funtzioa betetzen duela publikoaren zenbait behar eta nahi asetzeko orduan.

Angel Eraul



UAGNko presidentea

Nafarroako sindikatuak patataz landatu zuen joan den asteartean Espainiako Nekazaritza Ministeritzak Nafarroan duen ordezkari-tza, arlo honek, nekazaritza osoak bezalaxe, duen egoera larria salatzen. Hau ez da izan, baina, ekintza bakan bat, Euskal Herri osoan ere protestarekin segituko bait dute aurrera, bereziki Araban. Aragoa da prezioek izugarriko jeitsiera izan dutela, barneko produkzioak asko igo duelako. Baina honetaz gain, importazioak ez dira jeitsi behar bezainbeste, eta horren kontrako neurriak hartzea eskatu dute behin eta berriro sindikatuek.

Txetxu Villaldea



Eskubaloijokalaria

Asteartean estreineko aldiz Ajantzi zuen jokalaririk San Antonio Mepamsaren elatikoa. Elgorriagaren aurka aritu zen Mepamsa egun horretan, eta jokalaririk nafarrak fin ibili ez baziren ere, zaletu antoniarrek kontent ziren norgehiagokaren amaieran. Villaldea argi eta garbi erakutsi zuen maila handiko jokalaria dela, eta baita ere aurrerantzean pozik egoteko arrazoiak emanen dizkiela zaletuei. Villaldeak lesio larria izan zuen iaz belaunean, baina dagoeneko lesio horrek ez dio minik ematen, eta jokalaria berriz ere topera jokatzeko irrikitan dago.

ZINEMA



'Nunca te acuestes enfadado', 'Hamlet', 'La discreta', 'El prado', 'Sombras y nieblas' eta 'El cabo del miedo' filmeak ikusi edo berrikusteko aukera izanen da heldu den astean zehar Iruñeko Golem zinemaren Udako emanaldi berezi honetan jatorrizko hizkuntzetan botako dituzte filmak.

ANTZERKIA



'El Picaro', aventuras y desventuras de Lucas Marañá izena daraman obra antzezutako da Erriberri, Jaialdien Aretoa, gaur, ostirala, eta bihar gaueko hamarretatik aurrera. Alvarez aktoreak alprojaren bizitzaren ikuspuntu berezi baten berri ematen du obra honetan, hots, gizarte maila guztietan hedatzen den alprojaren joera. Antzerki taldearen partaideen ospeak goi mailako ikuskizuna ziurtatzen du.

Zotal Teatre taldeak 'Z' izeneko obra taularatuko du heldu den asteartean, hilak 25, Tuterako Gaztambide antzokian.

Duodeno taldeak 'III Congreso Internacional de timadores' izena daraman lana aurkeztuko du heldu den asteazkenean, hilak 26, Tuterako Gaztambide antzokian, arratsaldeko zortzietatik aurrera. Ekitaldi hau Nafarroako Jaialdien barruan dago paratuta.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9


Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratisaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz El-karrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Aurizberri.

Aurizberrin txupinazoa aurreratuta

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Aurizberrin bihar bertan, larunbata, hasiko dira festak, 'nobedade' azpimarragarri batekin. Izan ere, txupinazoa goizeko ha maiketetan izanen da, eguerdiko hamabietan izan beharrean. Horren arrazoia, garrantzitsua: bertako neska bat ordubatean ezkonduko da, eta ez da inoren nahia egun eder hori zapuztea.

Gero, arratsaldean, platerari tiro txapelketa izanen da, eta ondoren, txokolatada umeendako. Gabero, dantzaldia eta igande arratsaldean, herri kirola ikusi ahal izanen da, aizkolariekin.

Astelehen eta asteartean ez du festak huts eginen, baina asteazkena izanen da egun nagusia, txistulariak eta mountain-bikeren laisterketarekin. Eguerdian herri bazkaria izanen da, eta arra-

tsaldeko zazpietarako gordeta dago festa hauetako elkitaldirik azpimarragarienetakoa: Aurizberri eta Mezkitritzen arteko herri kirolen desafia, trontzan zein sokatiran.

Ondoren, indarrak berreskuratzeko eta lehiaren zapore miktza goxotzeko apur bat, ardoa eta gazta eskeiniko dira guztiendako, eta gabez amaituko dira festak, 'Pobre de Mi-rekin'.


Gorritin festak gabean dituzte gogoko

P.U. / IRUÑA

Gorritiko (Larraun) festak gaur bertan hasiko dira, gabean, eta musikak zabalduko du berria, herriko plazan, programan besterik ez bait dago iragarrita. Ondoren, larunbatean, aizkolaria izanen dira, ekitaldia goizez edo arratsaldean izanen den oraindik guztiz zehaztuta ez badago ere.

Bertsolariak ere igandean ari tuko dira, urtero egiten ohi den festaren ohitura ez galtzeko, eta pilota partiduak ikusgai izanen dira larunbat arratsaldean. Larraun ibarreko herri txiki honetan jende asko espero da, batez ere ostiral eta larunbat gabez. Izan ere, eta bertako Balda etxeko andreak esaten duenez, «lehen baino askoz ere jende gehiago etortzen da orain, baina hori bai, gabez. Badakizu, orain festak gabez egiten dira...»

Astelehenean, azken eguna, Gipuzkoatik etorritako trikitilariak ari tuko dira herriko kale-



Gorriti.

tatik zehar, giroa alaitzeko, eta horiekin batera gazteak puxka bila ibiliko dira herri eta base-rietan zehar. Ondoren, bazkaria izanen dute gazteek bildutakoarekin, inguruko herri askotan egiten den bezalaxe.

Jendea inguruko zein aparteko herrietatik hurbiltzen da urtero Gorritira, eta Gipuzkoatik —Tolosaldeetik asko— etortzen direnak ez dira gutxi izaten.

Bota atxurra!

A.U. / MARCILLA

Marcillako festak beste edozein herritakoak bazalakoak direla uste duenak ez du sekula bertako atxur jaurtiketa ikusi. Aurten Munduko VI. Txapelketa egingo dute eta baliteke amerikar bat edo beste Marcillara hurbiltzea, iazko atxur jaurtiketa Estatu Batuetako telebistan erakutsi bait zuten. Aurtengo lehiaketa hilaren 27an ospatuko da, baina hori heldu bitartean izango da zer ikusi San Bartolomeren ohorez egiten diren festetan.

Jaiak etzi hasiko dira, Udaletik zerrurantz irtengo duen lehenengo suziriak eztanda egitean. Txupinazoa Jose Mari Ololla zinegotziaren esku utzi dute aurtan, bera bait da jai batzordeko burua. Olollak kontatu digunez, txupinazoa izaten da Marcillako festetako ekitaldirik «koloretuena eta bereziena». Izan ere, berrogeitabost peña daude herrian eta festa haseran denak elkartzen dira plazan, bakoitzak bere alkondara soinean duela. Egitarauak gomendatzen duenez, 'formalenek' udal musika bandarekin irten behar dute eta zaratazaleen, txarangarekin.


Txupinazotik kanpo, eguneroko menua entzierroek, musika emandaldiek eta su festek osatuko dute. Osotara, zortzi milioi pezetako aurrekontua izan du Marcillako Udalak aurtengo programa prestatzeko. Musikak bi txoko izango ditu: herriko plaza eta Elkarte. Plazatik 'Trio Chevere', 'Iruña Banda' eta 'Los

Pamplonicas' pasako dira. Elkarteetan, aldiz, orkestrak eta diskoteka kutsuko doinuak izango dira nagusi.

Leku gehienetan festa gaueko kontzertuarekin bukatzen bada ere, marcillarrek 'gaueko botxo' asmatu zuten parranda pixka bat luzatzeko. Horrela, mundu guztia gaueko ordubietan biltzen da, bapateko txaranga osatuz, eta

kalez kale ibiltzen da herriko plaza iritsi arte. Han giro aparta sortzen da, Olollaren esanetan, «ohera joateko gogoak kentzen dituen horietakoa». Zuri ere erretiratzeko ordua atzeratzen bazazu, lasai, goizeko bostetan salda bero beroa eskainiko bait dute peñek, egunero txandatur.

Jaiak hurrengo igandean, hilak 30, itzaliko dira kandelatxoak piztuz eta ohizko 'Pobre de mi' kantatuz.





Nafarroako Bardeetako arautegiaren aldaketa eztabaidatuko da heldu den irailean bertako Batzorde Orokorren bileran. Arautegi honetan erabakiko diren aldaketak funtsezkoak izango dira zonalde honen etorkizunarako, aurrerantzean emango zaizkion erabilerak zehaztuko bait dira bertan. Hasteko, eztabaida sortu da, lurren jabetza nekazarien eskuetan utzi nahi dutenen artean, eta zonalde osoari irtenbidea eman nahi diotenen artean, garapen orekatu eta zentzuzko baten barruan.



Eta Bardeekin, zer?

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Heldu den irailean eztabaidatuko diren arautegiek funtsezko garrantzia izango dute neurri premiazkoak eta eraginkorren behar handia duen alde bitxi honendako. Arautegi honetan erabakiko da, erabaki ere, Bardeetako etorkizuna: edo basamortu bihurtu, zenbaiten esku, eta gero eta etorkizun ilunagoa duen nekazaritzaren morroi; edota alternatibak bilatu, hogeitabi entitatena, eta iharduera eta erabilera berriak bere baitan jasotzeko gauza, garapen orekatu baten menpean.

Kaltetutako herri guztien ordezkariak bat datoz Bardeetako arautegia atzeratuta dagoela esatean, baina arautegi hauek aldatzeko lehendabiziko proposamena ez zen onartu. Egoera ulertzeko bi gauzei erreparatu behar

zaie, eta lehendabiziz, oraingo arautegiak dituen mugei.

Bertan oso mugatuta daude Bardeetan egin daitezkeen iharduerak, eta denak bat datoz esatean etekinik ematen ez duen lurra utzi egin beharra dagoela, beste erabilera emateko. Horren aurka daude nekazariak, lurrak belaunaldiz belaunaldi aprobeztatzeko eskubidea galduko luketelakoan.

Baina benetako eztabaida sortu duena arautegi berrian aipatzen diren bi artikulua izan dira, biak, haien kontra egin dutenen esanetan, jabetza pribatua lortzeko zuzenduta. Esan beharra dago Bardeetako nekazariak ez dutela lurren jabetza, nahiz eta belaunaldiz familiak ustiatu, eta bi urtetan erabiltzen ez bada, eskubide guztiak galtzen dituzte.

Artikulu hauen kontra egin

zuten herrietako talde zenbaitzuek, eta PSOEkoen laguntza ere lortu zen orduan. Hauek Nafarroako Gobernuak argitaratutako 'Bardeetako gestioa eta konterbaziorako irizpideak' izeneko lanean oinarritzearen aldekoak dira. Azterketa honen arabera, soilik etekinik ematen dituzten lurrak erabiliko lirakeke, oreka ekologiko baten barruan;

Batzordeak, lurrak berriro emateko, bidegarrtasun egitasmo sendoa eskatu beharko luke, eta horrela izan ezean, beste erabilerak bilatuko lirakeke: turistikokoak, basoen birlanaketak, eta abar. Indarrak nahiko parekatuta omen daude, eta azken finean nekazari eta gainontzeko herritarren arteko lehia izango dela dirudi.

'Basamortuan' nekazari

P.U. / ZARRAKAZTELU

Bertaraino inoiz joan ez eta soilik argazkiak ikusi dituenarentako Bardeak basamortu zaila eta zabalak da, aproposa mendi txirindulaz ibiltzeko eta poligonoaren kontrako martxak egiteko. Bere zabaleraren erdia (21.044 Ha.), baina, nekazaritzarako aprobeztatzen da, eta 1.200 nekazari inguru aritzen da bertan, batez ere Arguedas, Fustiñana, Zarrakaztelu, Cabanillas eta Caparrosokoak.

Jose Barriendo Zarrakaztelukoa da garagarra landatu eta ekoizten duen horietariko bat, Bardeetan dagoen laborantza ugariena. «Hona etortzen da jendea asko, batez ere bestaldekoa, 'Bardeetako basamortua' deritzan liburu batekin, eta hori gehiegizkoa da. Hau lehorra eta zaila da, baina beste lur asko bezalaxe».

Josek adierazten duenez, Bardeetan oso lur ona eta emankorra

da, lur txar askorekin nahastuta jakina, baina Bardeek duten benetako arazoa ur faltarena da. «Zarrakazteluko bertako lurra-ekin alderatuz, Bardeetakoak ez dira txarragoak, baina ur falta nabaria da. Hala ere, lan egiteko oso lur biguna da eta beste inongo batek baino arazo gutxiago ematen du».

Hala ere, lurrak uzteko prozesua areagotu da nabarmen azken urteotan, eta zenbait kalkuloek diotenez, Bardeetako lurren ia % 50ek ez dute etekinik ematen, eta utzi beharrean daude. Erribera osoan dagoen arazoari zonalde honek dituen berezko ezaugarriak gehitzen zaizkio, eta egoera ez da oso baikorra. «Europatik datozen laguntza batzuk ezin ditugu aprobeztatu —dio Josek—, Bardeetako arautegi berezia dela eta, eta gainera laborearen kopuruen banaketan 1.500€/Ha.ko egokitu digute. Baldintza hauek laboreak ez dauka etorkizunik».



Larre zabalak basamortuko irudiekin tartekatzen dira. JOXE LACALLE

Ekologikoki ez du parerik

P.U. / IRUÑA

Paseotxo bat ematea nahikoa da Bardeetan dagoen paisaia ikusgarria antzemateko. Aspal-diko partez turistendako erakar-garria, higadurak inguru zabal honetan izan duen eraginak ez du parerik Euskal Herria osoan. Hain handia, ezen zaila dela duela hiru mila urteko paisaia zein izango zen antzeman ahal izatea.

Alde honek jasan duen higaduran eragin zuzena izan du eta oraindik badu gizakumearen iharduerak, eta horrela nabarmendu da azterketa franko-tan. Iharduera hauek kenduta ere luraren desitxuraketa oso handia izango zen, egitura eta ezaugarri klimatologikoak direla eta.

Ezaugarri hauek gorabehera bertan gordetzen dira espezie eta ekosistemak arrot bitxiak Euskal Herrian, ongi zaindu beharrekoak. Hauen artean aipatu daitez-

ke Eguarasko eremua, Bardea Beltzaren magalak, Cortinaseko zingira eta Bardea Zuriaren alde esteparioak.

Gainera, bertan topa daitezke Euskal Herriko basoilo handi bakkarrak, ganga eta ganga azpibeltzen populazio ugariak eta Duponten hegaxabalak, denak oso

Eguarasko Erreserba Naturalan jatorrizko landaretza duen 350 hektarea daude, batez ere aleppo pinu, abaritz txaparro, ipuru, sabina, legeltxor eta erro-meroa.

arraroak beste eremuetan. Halaber, azpimarratzekoak dira, hontza handiak, arrano beltzak, sai zuriak, denak babestuak eta interes handikoak. Bardeetan aurki daitezkeen amildegia, badlands eta benetako desertuak, Mendebaldeko Europan izanda, interes ekologiko-paisajistiko handikoak direla: basamortu bat Nafarroan!


Hiru dira eremu honetan dauden Erreserba Naturalak: Eguaraskoa, Buko txokokoa, eta Bardea Beltzaren magalekoa.

Eguarasko Erreserba Naturala izen bereko dermio partikularren barruan dago kokatuta, 500

Eguarasko dermio amildegietan daude Bardeetako zonalde aberatsenak fauna eta begetazioari dagokionez. J. ELOSEGUI

hektareako zabalarekin. Erreserban jatorrizko landaretza duen 350 hektarea daude, batez ere aleppo pinu, abaritz txaparro, ipuru, sabina, legeltxor, eta erro-meroa. Halaber, fauna ere oparoa da, eta bertan topa daitezke arrano beltza, basurdea, sai zuria, zata lepagorri, apo pintatu iberiarra, Montpellierko sugea, eta abar.

Buko txokoko Erreserba Naturalak 460 hektareakoa zabalera hartzen du eta horietatik 45 daude landatuta. Interes geomorfologiko handikoa, bertan antzeman daitezke Bardeetan higadurak sortu duen errelebearen formarik ezagunenak eta bitxiak.



Arrano beltzak, amildegi batean.

J. ELOSEGUI

BARDEAK ETA BERTAN ESKUBIDEAK DITUZTEN HERRIAK



- 1 Marcilla
- 2 Alesbes
- 3 Milagro
- 4 Cadreita
- 5 Valtierra
- 6 Santacara
- 7 Melida

Hogeiabi herriren jabetasuna

P.U. / IRUÑA

Nafarroako Bardeek 42.500 hektareako zabalera duen eremua estaltzen dute. Aragoako mugan. Bertan hogeiabi udal edo entitatek dute hortik etekinak ateratzeko eskubidea: Tutera, Corella, Arguedas, Valtierra, Fustiñana, Cabanillas, Cortes, Buñuel, Cadreita, Milagro, Alesbes, Marcilla, Funes, Azkoi, Falces, Caparros, Santacara, Melida, Zarrakastelu, Erronkari ibarra, Zaraitzu eta Olivako Monastegia.

Bardeek, berez, egitura berezia dute, 'komunal atipikoa' edo 'ondasun komunalak' bait dira. Behiala, Espainiako erregeen ondasuna zen, baina gero eta nekazari eta ganaduzale gehiago hasi ziren lurak aprobetxatzen, inolako onarpen legalik gabe; harik eta 1702an Felipe Vak, gerrarako behar zuten sosen truke, eskubidea eman zien arte; bertako lurak aprobetxatzen zezaten.

Gaur egun, oraindik jabetasun bikoitza dute Bardeek. Alde batetik, jabetasun zuzena Estatuari

dagokio, baina aprobetxamenduarena, hogeiabi entitateena da. Entitate hauek Bardeetako Batzorde Orokorren barruan daude bilduta, eta 1979an Estatuak batzarre honi onartu zion luraren jabetasuna. Horren kontrako errekurtsioa aurkeztu zuen baina, Bardeetako Sindikatuak jabetasuna nekazariendako lortu asmotan, oraindik lortu ez dena.

Bardeetan, garai batean abeltzantza izan zen iharduera nagusia, eta hori frogatzen duten lehendabiziko agiriak 882ko urtekoak dira. Betidanik ere ugariak altxonbide edo ardidibideetan barna heltzen ziren Erronkari eta Zaraitzuko ganaduzaleak ziren. XIX mendearen amaieran, baina, nekazaritza nagusitu zen, eta egun bi iharduerak elkarren ondotik aritzen dira, arazo handirik gabe.

- Basoen ustiakuntzaz aritzeak, egun, trufa iduri dezake, baina oso ohizkoa izan da urte askotan. Egundik, soilik babestutako inguruetan aurki daitezke benetako basoak.

Betidanik abeltzantza izan zen iharduera nagusia, baina XIX mendearen amaieran nekazaritza nagusitu zen. Egundik elkarren ondotik aritzen dira, arazo handirik gabe.

Gazteendako Zokoa

Mokolodia

Coccothraustes coccothraustes

Gorria eta sendoa
Urria Nafarroan
Bakartia eta zakarra



Txori lodikotea


Ongi merezitako izena, bai horixe, txori handi honena. Papargorria ere esaten ohi zaio Nafarroan, gorputz osoa sendo eta lodikotea bait dauka. Ia birigaroaren tamainakoa, mokoa handia eta borobila dauka, edozein fruitua puskatzeko adinakoa.

Arrak arrea dauka burua, eta lepoaldean marra urdinak zeharkatzen du. Kolkoa eta saiheskiak, berriz, gorri samarrak ditu, eta zintzurria eta mokoaldea beltza. Hegan ari denean hegoetan dituen zolda txuriak eta isatsaren muturrak nabarmentzen dira.

Oso txori zaila da, bakartia eta zakarra, eta soilik neguan biltzen da sailetan. Zuhaitz handietan erruten ditu arraultzak, goiko adarretan, eta bat edo bitan erruten ditu urtero, bakoitzean laupabost arraultzekin.

Europa osoan bizi da, eta soilik Irlanda, Eskozia eta iparraldean da urri. Nafarroan ere nahiko urria da, nahiz eta zenbait puntutan —Burunda, Lesaka, Arantzeta, San Martin Unx— ikusi ahal izan den azken urteotan.

Bere tamaina gorabehera, ez da erraz ikusten edo antzematen diren horietakoak, baina ibaien inguruko alde zein iparraldeko edozein tokitan aurkitu daiteke.



Izarretako gerlariak

JESUS MARI IRISARRI

Behin bazen mutiko gazte talde bat, eta NASAn egiten zuten lan, eta bazekiten espazio ontziak pilotatzen. Oso ausartak ziren eta egun batean mundu berriak ikustera joan ziren espazio ontzian.

Lehenbiziko planeta Marte zen eta Marten sartu ziren. Oso itsusia zen, zertaz bazen itsaso gorri bat. Oso harrizta zeuden zertaz ez zen inor ageri, eta orduan jende arraro batzuk etorri ziren eta taldea hartu eta kartzel arraro batera eramane zituzten.

Handik ezin ziren atera, baina batek, Izarra izena zuena, bazuen bonba handi bat dena xehetzen zuena. Orduan jarri zuten eta kartzela xehetu zuten, eta lasterka joan ziren haien espazio ontzira. Piztu zuten motorra eta joan ziren Martetik. Atera orduko, han

zuten Marteko polizia espazio ontzian; orduan taldeak prestatu zuen Whin kanoia —oso botetsua zen, sobera, zertaz egiten ahal zuen planeta bat xehetu—; hasi ziren kontaktzen eta kanoiak tiro egin zuen eta martetarrek hil egin ziren.

Espazio ontziak 'Izarretako Gerlaria' zuen izena eta oso handia zen, han denetatik bazuten. Azkenean aurrera segitu zuten. Urrutian bazen zulo beltz bat eta ez zekiten zer egin, oso arraroa zen. Orduan batek Whin kanoiarekin egin behar zutela xehetu esan zuen. Prestatu zuten Whin kanoia, hasi ziren kontaktzen eta tiro egin zuten. Zulo beltza dena puskatu zen serrina bezala edo gehiago. Aurrera segitu zuten oso kontent eta Saturnora ailegatu ziren.

Arrolte bat iduri zuen, oso polita zen, dena belarra eta elurra, eta baziren diamantezko perla batzuk. Orduan agertu ziren gizaki harrigarri batzuk oso indartsuak; oso gizon onak ziren, baina denak zulo handi batera erori ziren. Ez zekiten zer egin eta orduan batek bazuen pala antzeko tresna bat. Zulo handi bat egiten hasi zen eta atera zituzten. Kanpoan bazen dragoi handi bat eta handik joan ziren espazio ontzira. Prestatu zuten Whin kanoia, egin zuten tiro eta dragoia dena puska ttikitan gelditu zen. Orduan saturnotarrek diamantezko harri bat eman zieten oroigarri eta Lurrera joan ziren. Oso aberatsak izan ziren eta oso jakintsuak, zertaz jendeak galderak egiten zizkieten eta bazekiten dena. Horrela ezagutu zuten espazioa.



BASAJAUN

Gaur oso hurbil dugun gai batez hitzegingo dugu. Hain hurbil izanda arrisku gutxiagokoa ez dena, alegia.

Gure bainugelan egunero aurkitzen dugun hainbat produktuk duen arriskuaz askotan ez gara konturatzen, egunero baliatzen bait gara haietaz. Hain beharrezkoak eta erabiliak ditugun produktu hauen konposizioa eta erabiltzen dituzten osagaiak —limoneno, paradicolobeneno eta abar— kalte handiak sortzen dituzte gure osasunari, eta baita gaixotasunak eragin ere, batez ere gibelesko minbizia.

Adibidez, zure bainontzia garbitzeko erabiltzen duzun produktua oso kaltegarria da azala eta begientzako eta bi atal hauei gaixotasun larriak sortzen dizkie.

Baina hain erabiliak diren produktu hauekin, zer egin dezakegu? Beste gauza askorekin egin den bezalaxe, erosleentzako zerranda bat egin beharko litzateke. Baita ere, adierazi bertan osagai bakoitzak zer-nolako arriskua dakarren eta ze gaixotasun mota sor dezakeen. Halaber, beste produktu zehatzekin nahastean zer gerta daitekeen azaldu beharko litzateke informazio hauetan.

Baina honetaz gain, badago zuk zeuk egin dezakezuna. Adibidez, merkatuan aurkitzen ditugun 'kimika goxoak' osaturiko produktuak erosi. Ez dira asko, baina badaude dagoeneko horrelako informazioa dakarten zenbait produktu. Betiko aholkua bada, txoko honetatik: bila itzazu alternatibak. Mugitu zaitez, motel! Kontseilu hauek zure osasunerako bait dira.

KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

□ Filomena

Arbolaren bat paratzeko asmotan ibiliz gero, jar ezazu ardantzea. Ez behar asko ezagutu ditut nere bizitzan. Bortxaz ezkontarazia eta eztaietan bertan dorreko kanpaia erori eta apeza eta hamaika bat gonbidatu akabatu. Gerrara lau egunetako afera zelakoan joan, udarako ez amaitu, herrira heldu, uzta garaia zela eta, desertoretzat hartu bidean eta afusilatu. Baina deus ere ardantzeak ihartu ziren urtea bezain larria. Kuitak herriko karriketari barrena saltoka ibiltzen ziren eta guk ito ezinez.

JEREMIAS ERRO

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra	1	2	3	4	5
2. Zoratu	2				
3. Erabateko	3				
4. Itorik	4				
5. Irabaziak	5				

- Natura
- Ohar
- Herri nafarra
- Tua
- Gaiak

1	2	3	4	5
1		2		4
	2			
3				
4				
5				

- Herri nafarra
- Ereduzko zati
- Logura
- Metal preziatu
- Guztira

1	2	3	4	5
1		2		4
	2			
3				
4				
5				

Zaharrak berri

Larra maldaren alde.
Gaiztoa gaiztoaren alde beti.

Larraun

Eri beratx, hil gogor.

Beti eri direnek luze-irauten dute.

Esteribar

Ertzain batek farolari helduta dagoen mozkor bati:

—Hoa azkar etxera, bestela...

—Ezin dut, txapela erori zait eta.

—Jaso ezak, ba!

—Bai, eta nork eutsiko dio bi-tartean farolari?

Bizi Bizian

Gaur, gabeko hamar t'erdiak inguruan egingo du debuta Ruben Beloki pilotari burlatarrak, Donostia-ko Anoeta frontoian, eta ondoan Antxon Ibarra bere entrentzailea izango du. Hain zuzen ere Belokiren debutarekin sortu den aferaren erdian dago egunotan Ibarra, profesionaletan aritzeko tartekari lana egiteagatik Espainiako Federazioak espediente ireki ziola zabaldu bait zenjoan den astean. Azken hau berak gezurtatuta ere, Cubako Mundialetara ez da joango, eta afizionatuetan aro bat amaitu dela esatea badago.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Antxon Ibarra entrentzailearen zeseari buruzko zurrumuruak joan den astean hasi ziren, Espainiako Federazioak bere kontrako txostena irekia zuela zabaldu zenean. Bertan, leitzarrrak zenbait pilotari afizionatu —bereziki Ruben Beloki— profesionaletara pasatzearekin izan zezakeen lotura aztertu nahi zuten Madrileko agintariak.

Hortik aurrera, zurrumuruak zabaldu ziren, eta egunkari honek baieztatu ahal izan zuenez, joan den astean jada ezaguna zen ez Beloki ez Ibarra ez zirela Cubara

joango. Entrentzaileak, federazioaren erabakia ezaguna zuelako, eta pilotariak, afizionatu mailan dena irabazita, lehenbailehen egin nahi zuelako debuta.


Hala ere, Ibarrak asteartean baieztatu zuenaren arabera, federazioak ez dauka inolako txostena irekita bere kontra, eta ez da zesarik izan. Espainiako Federazioaren buruarekin ezinezkoa izan da egunotan hitz egitea baina

garbi dago zerbait egon, bada-goela.

Eskulari-Pilotaberri enpresaren partaidea den Juan Ignacio Retegiren esanetan, Ibarrak Belokiren fitxaketan izandako papera «lotura bat» besterik ez zen izan. «Ni aurretik mintzatu nintzen Belokirekin —azaltzen du pilotari ohiak— eta gero Ibarrarekin, harreman handia baitu pilotariarekin. Eta esan zigun bera

mintzatuko zela pilotariarekin. Gauza gehiago ez zen izan, edo nik behintzat ez dut ezagutzen».

Nolanahi ere, Ibarra eta Beloki profesionaletan arituko dira hemendik aurrera, eta hori afizionatu maila txikia gelditu zaienendako amaiera logikoa bazen ere, egin den era ez da egokiena izan. Retegik esaten zuen bezala, ez «gauzak benetan ongi egin direnean».



Ibarraren afera

Ibarra: «Ez naute postutik kendu»

A.B. / IRUÑEA

Joan den astean zabalduko zurrumuruak gezurtatu zituen Antxon Ibarrak EGUNKARIARI asteartean goizean emandako elkarrizketa honetan, eta bertan garbi gelditzen da bere egoera zaila, entrentzailea oraindik, baina Cubara joan gabe.

EGUNKARIA.— Baieztatu daitezke dagoeneko zure zesea, hau da federaziotik kanpo zaude?

ANTXON IBARRA.— Ez, ez nago kanpoan. Atzo [astelehenaz hitz eginez] iritsi zitzaidan eskutitz bat esanez Cubara ez nintzela joanen, baina deus gehiago.

EGUNKARIA.— Eta horrek ez du esan nahi zu kanpoan zaudela?

IBARRA.— Horixe ezetz. Beste bat eramango dute Cubara baina ni ez naute kendu.

EGUNKARIA.— Eta zu prest zaudete horrela jarraitzeko, Cubara joan gabe?

IBARRA.— Hori oraindik ez dut pentsatu. Belokiren debuta ostiralean [gaurkoz hitz eginez] izango da eta Armendarizena 28an. Nik jarraituko dut beraiekin, eta gero zer gertatuko den ez dakit. Nik nahiko nuke gauzak argitzea, baina eskutitz honekin utzi naute.

EGUNKARIA.— Espediente zabalatzeko orduan azalpenaren bat eman zizuten?

IBARRA.— Ez didate espedienterik zabaldu. Ez dute ezer egin. Informazio guztiak faltsuak dira. Bakarrik eskutitz hori dago.

EGUNKARIA.— Eta hitz egin duzu federazioarekin gauzak argitzeko?

IBARRA.— Bai, baina presidentea oporretan dago, eta ezin izan dut ezertxo ere argitu. Telefonoz esan zidaten Cubara en nuela joan behar, eta orduan eskutitza eta zergatiak eskatu nizkien, gauzak behar den bezala egiteko. Baina horretaz gain ez dago deus

Federazioaren isiltasuna

Ibarraren afera honetan garbi dago zerbait ezkutua badagoela. Bestela ezin liteke ulertu pilotaren munduan hain zabaldua dagoen 'kontseiluak' ematearen —hau da, afizionatuak, enpresak, eta federazioaren beraren artean dauden harremanak pilotari berriak ateratzeko orduan— kontu horren kariaz Antxon Ibarra bezalako entrentzailea Cubatik aldentzea: selekzioetik botatzea, hitz bitan esanda, eta berak ukatzen badu ere.

Gogoratu beharra dago hemen bera heldu baino lehen aurreko bi mundialetan Espainiako selekzioak galdu zituela, edo bigarrena gelditu, nahiz eta, teoriaraz, talde onena eduki, figura frankorekin. Azken mundialean eta Barcelonako Olinpiadetan erakutsi den sendotasunak, jende askok egin duen lana ahaztu gabe, badu izen eta abizen eazaguna.

Beraz, susmagarria da afera. Eta susmatzen hasita, edo Ibarra bere postutik kendu nahi zuten aurretik, edota Ibarrak kontseilua eman eta tarteko lana bideratu baino gehiago egin du. Bigarren hipotesia ukatu dute pilotariak, enpresak, eta Ibarrak berak ere, beraz ez dago susmatu beharrik, ez behintzat federazioak edo beste norbaitek kontrarik esaten ez badu.

Eta federazioaren isiltasuna da, hain zuzen, argitu behar dena, orain arte ez bait du tutik ere esan. Polemikaren erdian presidentea oporretan, eta berarekin hitz egiteko aukerarik gabe. Edo badute zerbait ezkutatzeko, edo argi eta garbi hitz egin behar dute, beste guztia Ibarra eta pilota beraren kalterako besterik ez bait da izango.

gehiago.

EGUNKARIA.— Guzti honen atzetik profesionaletara pasatzeko zenbait pilotari eman diozun laguntza dago. Zein izan da zure papera kasu horietan?

IBARRA.— Gauza hauek denek egiten dituzte, baita federazioek ere eta inoiz ez da ezer gertatzen. Ni Beloki eta Armendariz entrentzaile naiz eta horregatik laguntza ematen diet. Eta entrentzailea izateaz gain, beren laguna naiz.

EGUNKARIA.— Belokiren debuta aurreratzerakoan zer esanik izan du zurekin dagoen polemika honek?

IBARRA.— Belokik ez zuen joan nahi Cubara, eta nik konbentzitu nuen. Hala ere, asmo bakarra erdi oporrak pasatzea zen, kirola aldetik forma galdu besterik ez bait zukeen egingo. Orduan, ni ez joaterakoan, berak nahiago izan zuen debuta egin.



Gaur Belokiren ondoan izanen da Antxon Ibarra Anoetan. BASALDUA

Roman Kosecki

Futbolaria

Roman Kosecki aurrelari gorritxo berriak betebeharrak zaila izanen du Osasunan. Baloia sareetara bidaltzeaz gain, El Sadarreko porlana estali beharko du, harmaila hutsak berriz bete. Bera eta Urbanen

artean zaletu gorritxoen itxaropenak berpiztu beharko dituzte. Polonian komunismoa aspaldiko gauza bada ere, Kosecki eta Urbanek gorritxoen poloniar frontea osatuko dute, hau da, poloniar fronte gorria.

«Ezin da turkiarren fidatu»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Jokalariek Iruñean bakarrik astebete daraman arren, jadanik goitizena bilatu diote. Ezkurra lehendakariak Roman arrotz hori baztertu, eta Erramun esaten dio poloniarari. Zaletuak ez dira atzean geratu birbataitza kontu honetan, eta Kosecki ahoskaezin horren orde, Kosika deitzen diote varsoviar aurrelari txikiari.

Agian altuera hori dela eta, ordezkari handi batek lagunduta etorri da Kosecki Iruñera. Jan Maciejczyk jokalaria ordezkariek bere handitasuna zela eta Ezkurra lehendakari gorritxoaren txantxak jasan behar izan zituen astehenean. Jokalaria aurrelariaren aurkezpenean «Polonian pisu handiko gizona» zela azaldu zien Ezkurak kazetariari. Baina egia

esateko, gizon honen handitasuna ez da bakarrik fisikoa, izan ere poloniar lehendakari anitzen aholkularia izan da, eta baita Moskuko Unibertsitateko irakaslea ere.

Baina ziurrenik nafar zaletuen artean ikusmin eta zurrumuru gehien sortu duena Koseckik bere ezker belarrian duen belarritakoa izan da. Bat baino gehiagori ez zaio larregi gustatzen poloniarren zintzilikaria. Prentsurrekoa txantxa giro lasai honetan hasi zen.

EGUNKARIA.— Behin baino gehiagotan Polonian rock talde batean kitarra jotzen zenuela aipatu duzu. Ekarri al duzu Iruñera kitarra hori?

ROMAN KOSECKI.— Ez dut ezer ekartzeko astirik izan. Dena den, datorren urtea arte itxarongo dut

kitarra berria erosteko. Datorren denboraldian UEFA jokatuko dugu, eta orduan erosiko dut. Badakit iaz, Sofian, kitarra pilo bat erosi zutela.

EGUNKARIA.— Iaz hamabost gol sartu zenituen Turkiako liga txapelketan, eta gol horiekin Galatasaray taldeko zaletuen mirespena irabazi zenuen. Zer dela eta Turkia utzi Iruñera etorri?

KOSECKI.— Kontratua berritzeke neukan eta aukera izan nuenez... Kirol aldetik ez neukan inolako arazorik. Taldea Turkiako ligako lau indartsuen artean dago, eta zaletuekin harreman oso ona neukan. Arazoa kontratua berritzeke orduan heldu zen. Haiek azken momentura arte itxaron zuten kontratua berritzeke, han geratuko nintzelakoan. Horrek izugarriko amorrua eman zidan,



Planta txikikoa bada ere, jokalaria gogorra da poloniarra. JOXE LACALLE

batez ere nirekin zer gertatuko zen ez nekielako. Amorrazio momentu horretan Osasuna heldu zen. Telebistan sarritan ikusten nuen Espainiako liga, eta betidanik gustatu izan zait. Horretaz gain, selekzioan, Urbanek Osasunari buruz gauza onak esaten zizkidan, eta banekien talde serioa zela. Negoziaketak azkar burutu, eta berehala honutzat etorri naiz.

EGUNKARIA.— Arazo ekonomikoek zerikusirik izan al zuten erabaki horrekin?

KOSECKI.— Bai. Aurreko urtean kontratua sinatu bezain laster fitxaren dirua ordaindu zidaten. Aurten ordea, epeka ordaintzeko asmoa zuten, eta nik ez nuen horrelakorik nahi. Galatasarayren helburua liga txapelkun izatea da. Hori lortzen ez bada, taldeko jokalariek kaleratzeko kapaz dira, ezer ordaindu gabe gainera. Ezin zara turkiarren fidatu. Osasuna arlo horretan talde serioa dela badakit, hemen ez dut ino-


lako arazorik izanen.

EGUNKARIA.— 49 aldiz jantzi duzu Poloniako selekzioaren elastikoa. Osasunarena ezezki, izan al duzu beste talde baten eskeintzarik?

KOSECKI.— Bai, talde frankoren eskeintzak jaso nituen, besteak beste, Schalke 04 alemaniarrena, Le Havre eta Caen frantsesena, eta Aston Vila ingelesarena, baina esan bezala niri Espainiako liga gustatzen zitzaidan.

EGUNKARIA.— Liga txapelketa hiru aste barru hasiko da. Horren aurretik, datorren astehenean Osasunarekin lehendabiziko aldiz jokatu duzu, El Sadarren, Nazional Montevideoren aurka. Zure gorputzaldiari dagokionean, jokatzeko prest al zaude?

KOSECKI.— Oso ondo nago. Varsoviako Lejia taldearekin entrenatzen ibili naiz, eta horretaz gain Hegoamerikan izan nintzen uztailaren lehen hamabostaldian Poloniako selekzioarekin.



Cholo eta Urban aurrealdean izango dituen kideen aurrean, lehendabiziko entrenamenduan. JOXE LACALLE

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

